JESUSEN BIOTZARI ERREGUA.

Jesusen Biotz maitea! Zuretzat nai nuke.... zuretzat bakarrik nai det bizi; eta eman nitekean beziñ osorik ematen naitzazu. Zu nigatik eta nere amorez eskeintzen zeran aldare orretanche gelditzen naiz, naizen guziya: or dizut uzten nere gorputza, izan dediñ zure bizileku, sayatuko naiz beintzat, zuri konsagraturik dagoan gauzari bezela, begiratzen; or nere anima, bada egiñala egingo det bera birtutezko lorez apaintzen, zure begiyak argan atsegiñ izan dezaten; or gelditzen dira nere zentzubak, bada oyen ateak ichiko diyozkat tentaziyoari; or nere kemenak, zeruko zure argi eta mugida santubentzat idikirik; or nere pensamentubak, lurreko utskeri eta iduripen choroak aztu ditzaten; or nere deseoak, goiko zori-betikoari ezarririk; or nere birtute piška, zure babesean aziyaz, loratu eta frutubak eman ditzan; or nere griña biyurriyak, zure bideetara zuzendu ditezen; or, baita, nere pekatubak zure barkaziyoz barkatubak izan ditezen, gorroto guziz gorrotatzen, eta negarrik samiñenaz negartzen ikasi dezadan.—Biotz nereak nai luke gaurdandik betiko *zure* izan zuk, Biotz Jaungoikozkoa, beti *nere* nai izan dezun bezela. Guziya zuretzat, zuretzat betiko, pekaturik iñoiz ez, geiagoan dudarik ez. Nik serbitu nai zaitut, serbituko zaitut, ofenditzen zaitutenen ordañez; zugan pensatuko det, zutzaz oroitzen ez diranen partez; amatuko zaitut, gorroto dizutenen aldera; erregutuko det, negartuko naiz, eskeñiko naitzazu, zure ontasun guzizkoa, ezagutu gabean, arneguz, blasfemiz, iraintzen dutenengatik. Barrenaren barrenenak ikusten dituzun Jauna, nere deseoen, nere eresiyaren ziñeztasuna ondo ezagutzen dezun Emalle ugariya: indazu, eman oi dezun beziñ oparo argalik argalena indarrez sendotzen duan graziya; indazu etsayaren lurreko erasoetan beti zutik gelditzeko, beti garailari irteteko, kemena; eta indazu gerra neketsu orren ondoren pakezko atseden betikoa, Amen.